DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Idazkaritza nagusia
Secretaría general
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Doña NAGORE SARASOLA OTERMIN And.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretaria General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2026ko ekainaren 23an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, *aho batez*:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 23 de junio de 2026, aprobó, *por unanimidad*, la siguiente Declaración Institucional:

***ERAKUNDE ADIERAZPENA LGTBIQ+ HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA***

***DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CON MOTIVO DEL DÍA INTERNACIONAL DEL ORGULLO LGTBIQ+***

*Ekainaren 28a ospakizunerako, memoriarako eta aldarrikapenerako eguna da. Beste urte batez, Donostiako Udaletik LGTBIQ+ koleltiboak egindako bidea aitortu nahi dugu, eta pertsona askoten eta mugimendu sozialen ahaleginari esker lortutako eskubideak defendatu.*

*El 28 de junio es una fecha de celebración, memoria y reivindicación. Un año más, desde el Ayuntamiento de San Sebastián queremos reconocer el camino realizado por el colectivo LGTBIQ+, visibilizar la diversidad que existe en nuestra sociedad y defender los derechos que han sido conquistados gracias al esfuerzo colectivo de muchas personas y movimientos sociales.*

*Baina egun honek hausnarketarako tartea ere izan behar du. Izan ere, oraindik ere badira egiteko dauden lanak. LGTBIQ+ kolektiboaz multzo gisa hitz egiten badugu ere, errealitate guztiak ez dira baldintza berberen pean bizi.*

*Pero este día también debe ser un momento para reflexionar sobre aquello que todavía queda pendiente. Porque, aunque hablemos de colectivo LGTBIQ+ en conjunto, no todas las realidades están atravesadas por el mismo contexto.*

*Badira oraindik ere ikusgarritasun txikiagoa duten identitateak, gorputzak eta sexuorientazioak. Askotan, gutxiago ulertzen dira eta diskriminazioa jasateko arrisku handiagoa dute. Horien artean daude pertsona transak eta intersexualak ere. Haien errealitateek oztopo handiagoak izaten dituzte aitortza osoa lortzeko. Egoera hori ez da gizartean bakarrik gertatzen. Inklusio handiagoa egon beharko lukeen espazio eta komunitateetan ere iraun egiten du.*

*Existen identidades, corporalidades y orientaciones sexuales que continúan siendo menos visibles, menos comprendidas y más expuestas a la discriminación. Entre ellas se encuentran las personas trans e intersexuales, así como las mujeres lesbianas y las personas bisexuales, cuyas realidades siguen enfrentando mayores dificultades para ser reconocidas plenamente. Esta situación no solo se produce en la sociedad en general, sino que también persiste dentro de los propios espacios y comunidades donde debería existir una mayor inclusión y reconocimiento.*

*Era berean, ezinbestekoa da begirada intersekzionala izatea. Diskriminazioak ez du modu bakarrean eragiten, era ez die pertsona guztiei berdin eragiten. Gurutzatzen gaituzten faktoreak askotariakoak dira. Sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gorputzak beste goera batzuekin uztartzen dira sarri: arrazakeriarekin, poblreziarekin, exterik ez izatearekin, haurtzaroarekin,*

*Al mismo tiempo, es fundamental tener una mirada interseccional. La discriminación no actúa de una única manera ni afecta igual a todas las personas, son muchas las aristas que nos atraviesan. La orientación sexual, la identidad o los cuerpos se cruzan muchas veces con otras situaciones de vulnerabilidad o discriminación social: el racismo, la pobreza, el sinhogarismo, las infancias, la*

10740n XVII

*desgaitasunarekin, aniztasun psikikoarekin edo bestelako bazterketa egoerekin.*

*discapacidad, la diversidad psíquica u otras formas de exclusión social.*

*Horrek esan nahi du ez dela gauza bera LGTBIQ+ pertsona izatea laguntza-sare bat, egonkortasun ekonomikoa edo aitortza soziala izanda, edo prekarietatean, bakardadean edo diskriminazio anitzen erdian bizitzea. Euskadin ere bizi dira LGTBIQ+ pertsonak zaurgarritasun, desberdintasun edo ikusezintasun egoeretan. Besteak beste, egoera administratibo irregularrean dauden migratuak, kale egoeran bizi diren pertsonak, espazio heteronormatiboetan bizi diren adinekoak edo aniztasun psikikoa duten gazte LGTBIQ+ak. Pertsona batzuek zailtasun handiagoak dituzte enplegua eskuratzeko, etxebizitza bat lortzeko edo osasun-arreta jasotzeko. Beste askok ez dute espazio segururik aurkitzen, edo ezin dute beren identitatea lasaitasunez bizi espazio publikoan. Horregatik, Harrotasunaz hitz egiten dugunean, eskubideez ere ari gara. Eta pertsona guztientzako bizi-baldintza duinez. Inork ezkutatu beharrik izango ez duen gizartea eraikitzeaz ari gara. Inork bere burua justifikatu edo beldurrez bizi beharrik izango ez duen gizartea.*

*Esto significa que no es lo mismo vivir siendo una persona LGTBIQ+ con una red de apoyo, estabilidad económica o reconocimiento social, que hacerlo desde contextos de precariedad, aislamiento o discriminación múltiple. En Euskadi viven, aunque muchas veces en situación de vulnerabilidad, desigualdad e invisibilidad personas LGTBIQ+ migradas en situación de calle, mayores en espacios heteronormativos, jóvenes LGTBIQ+ con diversidad psíquica. Hay personas que siguen teniendo más dificultades para acceder a un empleo, a una vivienda, a la atención sanitaria, a espacios seguros o incluso a la posibilidad de vivir su identidad con tranquilidad en el espacio público. Por eso, cuando hablamos de Orgullo, también hablamos de garantizar derechos y condiciones de vida dignas para todas las personas. Hablamos de construir una sociedad donde nadie tenga que esconderse, justificarse o sentir por ser quien es.*

*Azken urteetan ikusten ari gara zenbait diskurtsoek dagoeneko lortutako eskubideak zalantzan jartzen dituztela. Era berean, espazio batzuk gero eta seguruagoak ez direla pertsona LGTBIQ+ askorentzat ere ikusten ari gara. Horren aurrean, gogorarazi behar dugu gizarteko espazio guztiak herritar guztienak direla. Eta espazio bat benetan publikoa bada, anitza izan behar du nahitaez. Kaleak, erakundeak, ikastetxeak, kultur guneak eta komunitate espazioak pertsona guztiek berdintasunean egon eta parte hartu ahal izateko lekuak izan behar dira.*

*En los últimos años estamos viendo cómo determinados discursos cuestionan derechos ya conquistados y cómo algunos espacios se vuelven cada vez menos seguros para ciertas personas LGTBIQ+. Frente a ello, es importante recordar que todos los espacios de la sociedad pertenecen a toda la ciudadanía. Y si es verdaderamente público, debe ser necesariamente diverso. Las calles, las instituciones, los centros educativos, los espacios culturales y comunitarios tienen que ser lugares donde todas las personas puedan existir y participar en igualdad de condiciones.*

*Aniztasuna ez da mehatxu bat, ezta salbuespen bat ere. Gure gizartearen errealitatea da, eta denon ondarea. Gizarte irekiagoa, demokratikoagoa eta giza arragoa eraikitzen laguntzen digu. Horregatik da beharrezkoa oraindik ere ekainaren 28an ahotsa altxatzea. Ospatzea ere erresistentzia egitea delako. LGTBIQ+ pertsona guztien errealitateak ikusgarri egiteak garrantzitsua izaten jarraitzen duelako. Eta oraindik ere badirelako bazterrean geratzen diren ahotsak, bizipenak eta beharrak.*

*La diversidad n es una amenaza ni una excepción: es una realidad social y un valor colectivo que nos enriquece como sociedad. Nos hace más abiertas, más democráticas y más humanas. Por eso el 28 de junio sigue siendo necesario alzar la voz. Porque celebrar también es resistir, Porque visibilizar todas las realidades de las personas LGTBIQ+ sigue siendo importante. Y porque todavía hay muchas personas cuyas voces, experiencias y necesidades continúan quedando al margen.*

*Hori dela eta, erakunde-adierazpen hau aurkezten dugu:*

*Es por ello que presentamos la siguiente Declaración Institucional.*

*1. Donostiako Udalak pertsonen eskubideak defendatu, sustatu eta bermatzeko konpromisoa berresten du, benetako berdintasun eraginkorra bultzatzen duten eta sexu-orientazioagatiko, identitateagatiko edo genero-*

*1. El Ayuntamiento de San Sebastián reafirma su compromiso con la defensa, promoción y garantía de los derechos de las personas LGTBIQ+, impulsando políticas públicas que favorezcan la igualdad real y efectiva y*

*adierazpenagatiko edozein diskriminazio-moduri aurre egiten dioten politika publikoak bultzatuz.*

*2.- Donostiako Udalak gogorarazten du gizakiok aske jaiotzen garela, duintasun eta eskubide berberekin, inolako bereizketarik gabe.*

*3. Donostiako Udalak onartzen du trans eta intersexualen, emakume lesbianen eta bisexualen errealitateak eta premiak modu espezifikoan ikusarazi eta artatu behar direla, eta, horretarako, pertsona horiek gizartean erabat aintzat hartzen eta beren eskubideak benetan baliatzen lagunduko duten ekintzak sustatu behar direla.*

*4.- Donostiako Udalak konpromisoa hartzen du sexu-eta genero-aniztasunarekin lotutako udal-politiketan ikuspegi intersekzionala txertatzeko, eta arreta berezia eskainiko die kalteberatasun edo gizarte-bazterketa handieneko egoeran dauden LGTBIQ+ pertsonei.*

*5. Donostiako Udalak herritarrei, gizarte-eragileei eta udal-langileei zuzendutako sentsibilizazio-, prestakuntza- eta prebentzio-ekintzak bultzatzen jarraituko du, aurreiritziei, gorroto-diskurtsoei eta LGTBIQ+fobiaren edozein adierazpeni aurre egiteko.*

*6. Donostiako Udala kezkatuta dago gorroto-diskurtsoak, desinformazioa eta LGTBIQ+ pertsonek jada konkistatutako eskubideak zalantzan jartzeko saiakerak areagotu egin direlako.*

*7.-Donostiako Udalak dei egiten die herritarrei LGTBIQ+ mugimenduek eta mugimendu feministek egiten dituzten ekintzetan parte har dezaten eta bat egin dezaten foro publikoek, komunikabieek eta sare sozialek gaur anistasunaren aldeko borrokaren eguna dela ikusarazteko egiten dituzten sentsibilizazio-eta aldarrikapen- ekitaldiekin.*

*Donostian, 2026ko ekainaren 23an*

*combatan cualquier forma de discriminación por orientación sexual, identidad o expresión de género.*

*2. El Ayuntamiento de San Sebastián recuerda que los seres humanos nacemos libres e iguales en dignidad y derechos sin distinción alguna.*

*3. El Ayuntamiento de San Sebastián reconoce la necesidad de visibilizar y atender de manera específica las realidades y necesidades de las personas trans e intersexuales, de las mujeres lesbianas y de las personas bisexuales, promoviendo acciones que contribuyan a su pleno reconocimiento social y al ejercicios efectivo de sus derechos.*

*4. El Ayuntamiento de San Sebastián se compromete a incorporar una perspectiva interseccional en las políticas municipales relacionadas con la diversidad sexual y de género, prestando especial atención a aquellas personas LGTBIQ+ que se encuentran en situaciones de mayor vulnerabilidad o exclusión social.*

*5. El Ayuntamiento de San Sebastián seguirá impulsando acciones de sensibilización, formación y prevención dirigidas a la ciudadanía, a los agentes sociales y al personal municipal. Con el objetivo de combatir los prejuicios, los discursos de odio y cualquier manifestación de LGTBIQ+fobia.*

*6. El Ayuntamiento de San Sebastián expresa su preocupación ante el aumento de los discursos de osio, la desinformación y los intentos de cuestionar derechos ya conquistados por las personas LGTBIQ+.*

*7. El Ayuntamiento de San Sebastián hace un llamamiento a la población para participar en las acciones que sean convocadas por los movimientos LGTBIQ+ y feministas, así como a sumarse a los actos de sensibilización y reivindicación que, desde los foros públicos, los medios de comunicación y redes sociales, hagan visible que hoy es un día de lucha por la diversidad.*

*En San Sebastián, a 23 de junio de 2026*

| | | |
|---|---|---|
| *Olatz Yarza Garagorri* | *Juan Karlos Izagirre Hortelano* | *Ane Oyarbide Ochoa* |
| *EAJ-PNVren bozeramailea* | *EH Bilduren bozeramailea* | *PSE-Eeren bozeramailea* |
| *Portavoz EAJ-PNV* | *Portavoz EH Bildu* | *Portavoz PSE-EE* |

*Borja Corominas Fisas*

*Ppren bozeramailea*

*Portavoz PP"*
==================================

*Arantza González García*

*Elkarrekin Donostiaren bozeramaile ordezkoa*

*Portavoz suplente Elkarrekin Donostia".*
====================================

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, sinaduraren egunean.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a la fecha de la firma.

**IDAZKARI NAGUSIA – LA SECRETARIA GENERAL**

**Nagore SARASOLA OTERMIN**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Nagore Sarasola Otermin (30/06/2026 13:51 CEST), Jon Insausti Maisterrena (30/06/2026 14:57 CEST)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : 11W9-FUXM-1LVX-V6AE